

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

ZEHARKAKO POLITIKETARAKO ARLOA

Hizkuntza Normalizazioa Azpiarloa

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onetsi zen Laudioko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-enpresetan euskarazko errotuluak sustatzeko dirulaguntza deialdia 2025. urterako

BDNS (Identif.): 816751.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/816751>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudio udalerrian egoitza edo ordezkartza duten merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiak betiere merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa txikientzako udalaren euskara planean partaide badira. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahal izango dira.

Bigarrena. Helburua

Laudioko merkataritza eta ostalaritza-establezimenduei eta zerbitzu-enpresa txikiei dirulaguntzak ematea norgehiagoka-erregimenean, euskara beren negozioen errotulazio-lanetan sar dadin sustatzeko.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudioko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAOn (28. zenbakia).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-kopurua 2.500,00 euro da.

Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAO-n argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2025eko azaroaren 6an amaitu.

Laudion, 2025eko otsailaren 21ean

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ